BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

243

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 20koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia), Ciba Iberia, S.L. enpresari latexa fabrikatzeko ingurumeneko baimen bateratua emateko dena.

AURREKARIAK:

2007ko urtarrilaren 12an, Ciba Iberia, S.L. enpresak Eusko Jaurlaritzako orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) latexa fabrikatzeko. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak aurkeztu ziren:

– Oinarrizko proiektua.

– Laburpen ez-teknikoa.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Ciba Iberia, S.L. enpresak, besteak beste, jardueraarako 1971ko maiatzaren 14ko baimena zuen estireno-butadienozko dispertsioak fabrikatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: kolektorera isurketak egiteko baimena, 2007ko maiatzaren 17koa, eta atmosfera kutsa dezakeen jardueraren ziurtagiria, 1999ko uztailaren 27koa, uren eta atmosferaren kutsaduraren arloan indarrean den araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

2007ko otsailaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Galdakaoko Udalari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kontsultatu zien.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko apirilaren 12an, uztailaren 4an eta urriaren 10ean.

Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko abenduaren 17an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Ciba Iberia, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urtarrilaren 23an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostena eskatu zien Galdakaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari 2008ko martxoaren 3an, espedientean jasotzen den emaitza jasoz.

Eskaeraren izapidetzearekin jarraitzeko asmoz, 2008ko apirilaren 8an, 2008ko abenduaren 15ean eta 2009ko maiatzaren 29an agiri osagarriak gehitzea eskatu zitzaion sustatzaileari; agiriak 2009ko irailaren 10ean osatu ziren.

2009ko azaroaren 24an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Ciba Iberia, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zuen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi izan dira. Ciba Iberia, S.L. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; kolektorera isurtzeko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta aurrea hartzeari dagozkion baimenak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta erakunde batzuek txostenak igorriz egindako parte-hartzea egiaztatu da espedientean.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei dagokienez ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Ciba Iberia, S.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Galdakaoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2007ko abuztuko polimeroei buruzko «Reference Document on the Best Available Techniques in the Production of Polymers» BREF agiriaren edukia hartu da kontuan.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Ciba Iberia, S.L. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko azaroaren 24an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onartzen duena; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala 08008 Bartzelonako Balmes kaleko 117. zenbakian eta IFK: B61166807 zenbakia duen Ciba Iberia, S.L. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) latexa fabrikatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.1 h) kategorian sartuta dago, «Oinarrizko produktu kimiko organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak, bereziki oinarrizko gai plastikoak (polimeroak, zuntz sintetikoak, zelulosa-oinarriko zuntzak)».

Ciba Iberia, S.L. enpresak, Guturribayko (Galdakao) 16.721 m^2-ko lantegian, estireno-butadienozko eta dispertsioko estireno-akrilikozko latex sintetikoa fabrikatzen du, eta urtean 30.000 t inguru ekoizteko ahalmena du. Horretarako, hiru ekoizpen-lerro dituzte, eta batik bat polimerizadore bat eta desorbatzaile bat dituzte, komunean dituztenak lehengaiez elikatzeko lerroko sistema, gasak ikuzteko sistema eta produktu bukatua iragazteko sistema.

Ciba Iberia, S.L. enpresaren ekoizte-prozesua lehengai hauek polimerizazio-erreaktorean kargatuz hasten da: estirenoa eta butadienoa batik bat, eta azido akrilikoa, anhidrido maleikoa eta azido fumarikoa.

Lehengaiak erreaktorean sartu ondoren, monomeroen polimerizazioa gertatzen da emultsio urtsuan erreakzionatuz, uretan disolbatzen diren katalizatzaileekin eta tentsioaktiboekin batera

(horiek polimeroaren biskositatea erregulatzen dute), irabiatze mekaniko eraginkor baten bidez, eta instalazioko lurrun-galdarako presio txikiko lurrunaren bidez.

Polimerizazioa amaitu ondoren, erreaktorearen edukia desorbatzailean deskargatzen da, eta bertan amaitzen da prozesua, erreakzionatu ez duten produktu hegazkorrak ezabatuz, eta azken produktuari ezaugarriak ematen dizkion gehigarriak (neutralizatzaileak, oxidatzaileak, etab.) gehitzen dira. Desortziorako, lurrun-galdaran sortutako presio txikiko lurruna (6 kg/cm^2) erabiltzen da.

Produktuaren desortzioa amaitutakoan, iragazketa-oihaletan begi-zabalera desberdinak dituzten iragazki bibratzaile irekietan iragazten da. Azkenik, produktuak azken produktuen tangetan biltegiratzen dira, bezeroari zisternetan bidali arte.

Deskribatutako prozesuaz gain, enpresak instalazio osagarri hauek ditu: lurruna sortzeko 4.041 kW-eko potentziako galdara pirotubularra, eraldaketa-zentroa (630 kVA-ko transformadore bat), ioi-elkartruke bidezko desmineralizazio-planta, eta bi hozte-dorre.

Instalazioak kontsumitutako energia-baliabideak hauek dira: energia elektrikoa (1.380.000 kWh) lantegia hornitzeko, eta gas naturala (465.000 m^3) lurrun-galdarako errekuntzarako.

Instalazioak hornidura-sareko 65.000 m^3 kontsumitzen du urtean batez beste hozte-sistemarako, polimerizazio-erreakzioaren prozesurako, eta zerbitzu sanitarioetan erabiltzeko.

Instalazioak isuri atmosferikoen 2 foku sistematiko ditu, prozesuko tximiniari eta lurrun-galdarari dagozkionak.

Instalazioan bi isurketa-puntu daude. Kutsadurarik ezin arrastatu duten euri-urak eta tangak hozteko urak fluxu bakar baten bidez isurtzen dira Ibaizabal ibaira. Tangak udaldian hozten dira, tanga guztietan dauden ureztaketa-eraztunen bidez. Tangetako hozte-ura ureztaketa-eraztunetara birzirkulatzen da, eta gehiena lurruntzen denez, zaila da hori isurtzea.

Bestetik, galdararen, huts-ponpen eta ekoizpeneko eraztun hidraulikoen purgen industria-urak, bi hozte-dorreetako urekin batera, 600 µS/cm-rako set-point bat duen konduktibitate-neurgailu bat duen bilketa-andel batera joaten dira. Horrela, hondakin-urek balio hori gainditzen badute, ur zurien andel batera bidaltzen dira, eta horren edukia hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimendu batek kudeatzen du. Set-pointa baino balio txikiagoak erregistratzen badira, prozesuko urak efluente-putzura bidaltzen dira. Bertan tratamendu fisiko eta kimikoa hartu ondoren, Plaza-koetxe-Usansoloko kolektorera joaten dira ur sanitarioekin batera.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak latexa fabrikatzeko prozesukoak eta instalazioko zerbitzu orokorretakoak dira. Hondakin ez-arriskutsu guztiak instalazioko zerbitzu orokorretakoak dira.

Besteak beste, proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne:

– Garbiketa-urak eta prozesukoak bestelako prozesuetara birzirkulatzea.

– Estirenoa tenperatura baxuetan biltegiratzea.

Bigarrena.– Ciba Iberia, S.L. enpresak Galdakaoko udalerrian sustatutako latex-fabrikazioa ustiatzeko ondorengo baldintzak eta betebeharrak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Ciba Iberia, S.L. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Ciba Iberia, S.L. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Ciba Iberia, S.L. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (mm)	Katalogazioa Taldea	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	48026074-01	Prozesuko tximinia	4,5	100	B	513251	4785933
2	48026074-02	Lurrun-galdara pirotubularra	8	100	B	513228	4785951

Gainera, KOHen isuri barreiatuak sortzen dira aireztagailuko efluente-tratamenduan.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Estirenoa	20 * mg C/Nm^3
	Butadienoa	2 ** mg C/Nm^3
2	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm

* Fluxua > 100 g/h bada.

** Fluxua > 10 g/h bada.

Instalazioko konposatu organiko hegazkorren guztizko isurien muga orokorra 170 g/t produktukoa da.

Muga-balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Kolektorera isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Kimika organikoko oinarrizko produktuen fabrikazioa.

Jarduera-taldea: 9.

Mota-taldea-EJSN: 2-9-24.14.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industria-urak eta hozte-urak	– Galdararen, huts-ponpen eta ekoizpeneko eraztun hidraulikoen purgak – Bi hozte-dorreen purgak	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarea	X: 513262,35 Y: 4786155,93

B.2.2.– Isurketaren emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak.

Orduko puntako emaria	3 m^3/h
Eguneko bolumena	64 m^3/egun
Urteko bolumena	22.000 m^3/urte

1. isurketa: hozteko urak.

Orduko puntako emaria	0,84 m^3/h
Orduko batez besteko emaria	0,42 m^3/egun
Urteko bolumena	3.613 m^3/urte

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Azken isurketak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera isurtzeko Araudian adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek elementu hauek dituzte funtsean:

– Bilketa-andela, 600 µS/cm-rako set-point bat duen konduktibitate-neurgailu bat duena.

– Aireztapen-andela, isuri aurretik efluentearen tratamendurako 600 µS/cm-tik beherako eroankortasuna duten hondakin-urak biltzeko. Instalazio hori hormigoizko 30 m^3-ko andela da, kanporako haizatzea eta barruan hodi aireztatzaile bat dituena, eta horretatik aire konprimituzko korronte bat sartzen da. Hodi aireztatzaileak zulo ugari ditu, eta horietatik aire konprimituzko korronte bat sartzen da andelera. Korronteak efluentea irabiatu eta uretan egon daitezkeen KOHak arrastatzen ditu.

– Ur zurien andela, 600 µS/cm-tik gorako eroankortasuna duten hondakin-urak (ur zuriak) biltzeko. Horren edukia hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimendu batek kudeatu beharko du.

Instalazioan erabilgarri dauden prebentziozko neurriei buruzko informazioa aurkeztu beharko da, ur zurien andeleko balizko jarioak fabrikako euri-uren sarera iristea saihesteko.

Tangen hozte-urei dagokienez, urtean egindako ureztatze kopurua eta zer alditan egiten diren zehaztu beharko da, isurketaren urteko emaria eta puntakoa balioetsita. Halaber, ur horren kalitateari buruzko informazioa aurkeztu behar da, ur garbiak direla justifikatuz, hala badagokio. Horretarako, erakunde laguntzaileak egindako analisia erantsiko da.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Ciba Iberia, S.L. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik. Behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrolerako kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzarentzako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarriak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da, autokudeaketa bidez edo balioztagune baimendu batera eramanda. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Galdakaoko Udalean.

Sustatzaileak adierazitako hondakinak ondorengo ataletan jaso dira.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

- 1. prozesua: «Latex fabrikazioa».

  - 1. hondakina: «Ur zuria».

  – Identifikazioa: B61166807/10810/1/1.

  – Hondakinaren kodea: Q7//D9//L20//C43//H5//A200//B5520.

  – EHZ: 070201.

  – Urtean sortutako kantitatea: 310,4 t/urte.

Latexa fabrikatzeko prozesuan sortzen da. Hondakin hori identifikatzeko 25 m^3–ko andelean biltzen da hondakin-biltegian, eta kudeatzaile baimenduari bidaltzen zaio.

○ 2. hondakina: «Latex-hondakina».

– Identifikazioa: B61166807/10810/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q08//D09//S13//C24//H05//A200//B5520.

– EHZ: 070201.

– Urtean sortutako kantitatea: 8,12 t/urte.

Aipatu hondakinarentzat identifikatutako 7 m^3–ko edukiontzian biltzen da hondakin-biltegian, kudeatzaile baimendu bati bidali arte.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Gai arriskutsuak eduki dituzten ontziak (SOHak)».

– Identifikazioa: B61166807/10810/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A300//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 20,93 t/urte.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatuta dauden plastikozko ontziak dira.

Soltean biltzen dira hondakin hori identifikatzeko eremuan, kudeatzaile baimendu bati bidali arte.

○ 2. hondakina: «Olio erabilia».

– Identifikazioa: B61166807/10810/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9//L8//C51//H5/6//A300//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 l /urte.

Mantentze-lanen azpiprozesuan sortzen da.

Hondakin hori identifikatzeko 100 l-ko bonbiletan biltzen da barrualdean, aparkalekuaren ondoan, kudeatzaile baimendu bati bidali arte.

○ 3. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: B61166807/10810/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C16//H6/14//A300//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kg/urte.

Lanparak birjartzean sortzen dira, mantentze-lan orokorretan.

Kartoizko kaxan biltzen dira mantentze-lanen tailerrean, kudeatzaile baimendu bati bidali arte.

○ 4. hondakina: «Bateria agortuak».

– Identifikazioa: B61166807/10810/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A171//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Orgatilen mantentze-lanen azpiprozesuan sortzen dira.

Soltean biltzen dira hondakin hori identifikatzeko eremuan zerbitzuen pabiloian, kudeatzaile baimendu bati bidali arte.

○ 5. hondakina: «Pila erabiliak».

– Identifikazioa: B61166807/10810/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C11/16//H6/14//A700//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg/urte.

Hondakin hori identifikatzeko plastikozko kaxan biltzen dira tailerraren eraikinean, kudeatzaile baimenduari bidali arte.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman

beharko du jatorritik helmugaraino. Ciba Iberia, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Ciba Iberia, S.L. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Kudeatzaile baimenduak egindako onarpen-agiria izateari, aurretiazko jakinarazpena egiteari eta kontrolerako eta jarraipenerako agiria betetzeari buruzko neurriak ez dituzte bete beharko kudeaketa-sistema bateratuen kudeaketa-azpiegiturara entregatutako hondakinek, edo udal-hondakinekin eta gaika bildutako izaera berekoekin bateratu daitezkeenekin batera kudeatzeko udal-erakundeetara entregatutakoek, betiere dagokion udal-erakundearen aldetik entrega hori egiaztatzen baldin bada. Entrega horiek udal-erakundeei egin izanaren egiaztagiriak bost urtez gorde beharko dira gutxienez.

Nolanahi ere, hondakinak sortzeko kontrol-erregistroan ekipo elektriko eta elektronikoen sortutako hondakinen kantitateak adieraziko dira.

j) Ciba Iberia, S.L. enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo eduki ditzaketen gailuak dituen artean, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Ciba Iberia, S.L. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik, edo desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

l) Ciba Iberia, S.L. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bat bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Ciba Iberia, S.L. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz

hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

o) Aipatutako e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Ciba Iberia, S.L. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak aitortu duenez, hauek dira sortutako hondakin ez-arriskutsuak:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urte)
Papera eta kartoia	20 01 01	Zerbitzu orokorrak	18
Sukaldeko hondakin biodegradagarriak	20 01 08		
Ehunak	20 01 11		
Plastikoak	20 01 39		
Bestetan zehaztu gabeko bestelako frakzioak	20 01 99		
Paletak	20 01 38		5,7
Txatarra	20 01 40		1

Sustatzaileak sortutako hondakin ez-arriskutsu hauen kantitatea xehatu beharko du: papera eta kartoia, sukaldeko hondakin biodegradagarriak, ehunak, plastikoak eta bestetan zehaztu gabeko bestelako frakzioak.

a) B.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «bestetan zehaztu gabeko bestelako frakzioak» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehazten dituena. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Ciba Iberia, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, datu hauekin: hondakin guztien kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Ciba Iberia, S.L. enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu eta dauden prebentziozko eta babesteko neurriak zaindu beharko ditu, hots, lehengaien eta azken produktuen ihesik ez dagoela egiaztatuko du aldizka.

Era berean, ezohiko jarduneko prebentzioari eta esku-hartzeari buruz ebazpen honen D.3 atalean jasotako neurriak, eta hondakinak biltegiratzeari buruz B.3 atalean jasotako neurriak hartuko ditu Ciba Iberia, S.L. enpresak.

Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik lanak onartu ahal izateko. Azterketa eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honetako F atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB (A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB (A) ere.

a.2) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB (A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB (A) ere.

a.3) Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Ciba Iberia, S.L. enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48026074-01	Prozesuko tximinia	Estirenoa	Urtero KEB batek
			Butadienoa	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
2	48026074-02	Lurrun-galdara pirotubularra	NO_X	Hiru urtero KEB batek
			CO	

b) Aurreko atalean adierazitako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egingo ditu (ordubeteko hiru neurketa gutxienez, zortzi ordutan zehar neurtuta); isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Adierazitako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidali beharko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Tona produktuko konposatu organiko hegazkorren guztizko isurien (karbono organikoaren guztizko gisa adierazita) kalkuluak bidali beharko dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatearen kontrola.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Industria-urak eta hozte-urak	BBUParen kolektorera isurtzeko Araudian adierazitako parametro guztiak	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)
		pH-a, T, eroankortasuna, OEK, KOH (CTLV)	Astean behin	Barnekoa
	Hozte-urak	pH-a, OEK, guztizko P, eroankortasuna, SE, Hondar-kloro askea, AOX	Urtean behin	Kanpokoa (KEB)

Sustatzaileak isurketen kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak aurkeztu behar ditu.

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua) edo saneamendu-sarearen kudeaketa-arduradun den erakundeak egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimeneko baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Estireno-butadienozko latex sintetikoaren ekoizpena	t
Dispertsioko estireno-akrilikozko latex sintetikoaren ekoizpena	t
Butadieno-kontsumoa	Butadieno kantitatea (t) / Estireno-butadienozko latex sintetikoa (t)
Estireno-kontsumoa	Estireno kantitatea (t) / Guztizko latex-ekoizpena (t)
Elektrizitate-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa (kWh) / Guztizko polimero-ekoizpena (t)
	Elektrizitate-kontsumoa (kWh) / Guztizko energia-kontsumoa (kWh)
Gas naturalaren kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa (kWh) / Guztizko polimero-kontsumoa (t)
	Gas naturalaren kontsumoa / Guztizko energia-kontsumoa (kWh)
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa (m^3)
Sortutako hondakin arriskutsuak	Sortutako HAak (t) / Guztizko polimero-ekoizpena (t)
Hondakin arriskutsu baliotuak	Hondakin arriskutsu baliotuak (t) / Sortutako hondakin arriskutsuak (t)
Polimero-hondakinak	Estireno–butadienozko polimero-hondakinak (t) / Estireno–butadienozko polimero-ekoizpena (t)
Butadieno-hondakinak	Butadieno-hondakinak (t) / Estireno-butadienozko latex sintetikoaren ekoizpena (t)
Estireno-hondakinak	Estireno-hondakinak (t) / Guztizko polimero-ekoizpena (t)
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	Sortutako HEAak (t) / Guztizko polimero-ekoizpena (t)
Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak (t) / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (t)

C.4.– Zarataren kontrola.

a) Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq,60 segundo indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru hilean behin. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta –prozedurak, eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek landutako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ebazpen honen hainbat ataletan ezarritakoaz gain, bidalketa urtean behin egingo da, beti martxoaren 30a baino lehen, eta ingurumena zaintzeko programaren emaitzekin batera, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostena aurkeztu beharko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan ezarritako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Lantegia gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, Ciba Iberia, S.L. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, azidoak eta hondakin arriskutsuak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

k) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko urak kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

n) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

o) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketa edo isuri atmosferikoren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

p) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatu behar bada, egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da erakunde eskudunaren aurrean.

Bestela, 2267/2004 Errege Dekretu hori zergatik ezin den aplikatu justifikatu beharko da. Gainera, instalazioek suteen aurkako babesaren arloan ezarritako exijentziak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaio enpresa instalatzaileak egindako ziurtagiria, suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrita. Halaber, tresna, ekipo eta sistemen mantentze-lanak Errege Dekretu horretan finkatutakoaren arabera burutzen direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Agiri horiekin batera, baimendutako enpresa instalatzaile edo mantentzaileak industria-erregistroan inskribatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

E) Urtean behin Ciba Iberia, S.L. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

F) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ciba Iberia, S.L. enpresak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean: B.2.4 (Ur zurien andelaren prebentziozko neurriak eta tangak hozteko urei buruzko informazioa); B.3.1 e) eta B.3.2 c) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.3.1 m) eta B.3.2 e) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.3.2 (Papera eta kartoia, sukaldeko hondakin biodegradagarriak, ehunak, plastikoak eta bestetan zehaztu gabeko bestelako frakzioak hondakinen sortutako kantitate xehatua); B.4 (Lurzorua babesteko neurriak); C.1 (KEB txostenak, tona produktuko KOHen guztizko isurien kalkulua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3 a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3 g) (Biltegiratzeko ziurtagiriak egiaztatzea); D.3 h) (Larrialdi-egoeretarako material erabilgarrien zerrenda); D.3 i) (Kubetak husteko protokoloa); D.3 p) (Suteen aurkako araudia betetzearen egiaztagiria).

Era berean, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek egin beharreko ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta ekipatu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Ciba Iberia, S.L. enpresak ebazpen honen xede den latexa fabrikatzeko lantegian titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ebazpen honetako hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla ez egiaztatzea, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Ciba Iberia, S.L. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Ciba Iberia, S.L. enpresari, Galdakaoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 20a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.